



FEDERACION VIZCAINA DE MONTAÑA
BIZKAIKO MENDIZALE FEDERAZIOA
MARTIN BARUA PICAZA nº 27, 4ª PTA
48003 BILBAO
Tfno.: 94 443 17 34 Fax: 94 444 35 62
www.bmf-fvm.org
<https://www.facebook.com/pages/Bmf-Fvm/597553177057267>

AKTA

BIZKAIKO MENDIZALE FEDERAZIOKO BATZAR OROKORRA ASAMBLEA ORDINARIA DE BMF

Bilbon, 2022ko apirilaren 2an, goizeko 10:00etan, bigarren deialdian eratu da BMFren Ohiko Batzarra eratu da, presidentek behar bezala deituta, Bilboko Kirol Etxeko ekitaldiaretoan (Martín Barua Picaza kalea 27, Bizkaia-Miribilla pilotalekuaren atzealdea).

Federazioko presidentek, Víctor Manuel Vivar Morenok, bideratu du ohiko batzarra da. Idazkari lanetan Karmelo Ruíz de Alegría Martín aritu da. Zuzendaritza-batzordeko bertaratu diren kideak: José Félix Fernández de Ponga (Presidenteordea), Alberto Nieto Ibarrechebea (Diruzaina), Ana Sesumaga González, Garbiñe Okerantza Zulueta, Fernando Pérez Ruíz, Alberto Cardoso Corrales eta Arkaitz Vidal Iburguren.

BERTARATUTAKOAK:

KLUBAK:

Zuzeneko akreditazioa edo ordezkaritza duten klubak:

Deusto Menditarrak, Arroletza, Baskonia M.T., Goiko Mendi, Turista Barakaldo, Ganerantz M.T, Goi Gain M.T, Egunsentia C.M., Txarlazo M.T., C.O. Bidea, Leioa M.T., Beraskola M.T. eta Untza Mendi Taldea.

BMFren Hauteskunde Batzordeak eskatutako legegintzaldi honetarako ordezkaritza orokorra aurkeztu ez duten klubak, batzar honetarako unean-unean ordezkatuak izan direnak:

Club Alpino Lutzana, Juventus S.D. eta S.M. Encartaciones.

KIROLARIAK

Victor Manuel Vivar, Garbiñe Okerantza Zulueta, José Félix Fernández de Ponga, Fernando Pérez Ruíz, Alberto Cardoso Corrales eta Alberto Nieto Ibarrechebea.

TEKNIKARIAK:

Ana Sesumaga González eta Ibon Beaskoetxea Bustamante. 2

EPAILEAK:

Bat ere ez.

Victorrek, BMFko presidentea izanik, ongietorria eman die bertaratu direnei, eta etortzeagatik eskerrak eman dizkie.

Idazkariak bertaratutakoak zenbatu eta horren berri eman du. Honakoak dira: boto eskubidea duten 16 klub (45 boto), 6 kirolari (6 boto), 2 teknikari (2 boto). Guztira, 24 lagun bertaratu dira. Orotara 53 boto.

Behin ohiko batzarra eratuta, kideren batek Batzarra uzten badu, bere botoa abstentzio teknikotzat joko da, azken batzarretan egin den moduan.

OHIKO BATZARRA ERATZEA:

Aipatu datuak ikusita, presidenteak batzarra egoki eratu dela adierazi du, Federazioaren Estatutuetoako 20. Artikuluan jasotakoari jarriki.

Ez denez jaso bestelako gairen bat jorrazeko eskaririk, BMFren Estatutuetoako 19. artikulua jasotakoaren arabera, deialdiko gai-ordenan jasotakoei ekiten zaie.

LEHENENGO PUNTUA: 2021EKO AZAROAREN 20KO OHIKO BATZARRAREN AKTA IRAKURTZEA ETA ONARTZEA. BEHARREZKOA BALITZ.

Batza horretako edukia oraingora bertaratutakoei deialdiarekin batera helarazi zaiela jakinarazi da.

Besterik gabe, eta beti egiten den moduan, arrazoi praktikoak medio, ez da aurreko batzarreko akta hitzez hitz irakurri, irakurritzat eman da, eta bozketarako deia egin da bera onartzeko, hala badagokio.

Jarraian, bozkatu egin da, eta bertaratutakoek aho batez onartu dute.

BIGARREN PUNTUA: KLUB BERRIEN SARRERA.

Presidenteak adierazi du gaur lau klub berri aurkeztuko direla Batzarrean: **ARGIÑATX MENDI ELKARTEA, BASOZELAI TRAIL CLUB DEPORTIVO, GANEROITZ MENDI KLUBA, OSASUNALDE GARENDI MENDI TRAIL KLUBA.** Batzar Nagusiaren aurrean aurkeztean izango da ofiziala euren bat egitea.

ARGIÑATX MENDI ELKARTEA

- Jabier Rezagorri Landajo da klub honetako zuzendaritza-batzordeko presidentea.
- 2099ko ekainaren 21ean sortua.
- Egoitza Arantzazun dauka.
- Jarduera nagusia: Mendia.
- Bigarren mailako jarduerak: kultur ekintzak.
- Mendi-lasterketak egiten dituzte.
- Sortzaileak: Jabier Rezagorri Landajo, Luis Manuel Uriarte Garay, Joan Rezagorri Gorostiaga, Aintzane Gonzalez Galarza, Pedro Alvarez Ibieta, Jose Luis Atutxa Uriarte eta Sorkunde Galarza Soloeta.

OSASUNALDE GARENDI MENDI TRAIL KLUBA

- Ion Artetxe Zalbide da klub honetako zuzendaritza-batzordeko presidentea.
- Egoitza Basaurin dauka.
- 2021eko azaroaren 6an sortua.
- Jarduera bakarra: Mendia.
- Mendi-lasterketak egiten dituzte.
- Klubaren sortzaileak: Ion Artetxe Zalbide, Rubén Esteban Cordero eta Hanot

Echevarria Landeta.

BASOZELAI TRAIL KIROL KLUBA

- Santiago Fuenteseca Fernández da klub honetako zuzendaritza-batzordeko presidentea.
- Egoitza Basaurin dauka.
- 2021eko ekainaren 29an sortua.
- Jarduera bakarra: Mendia.
- Mendi-lasterketak egiten dituzte.
- Klubaren sortzaileak: Santiago Fuenteseca Fernandez, Iñaki Saez, Elena eta Igor Moras Fernandez.

GANEROITZ MENDI KLUBA

- Josu Arkaitz Martín Rodríguez da klub honetako zuzendaritza-batzordeko presidentea.
- Egoitza Barakaldon dauka (momentuz, ez dauka egoitza fisikorik)
- 2021eko apirilaren 9an sortua.
- Jarduera bakarra: Mendia.
- Mendi-jarduerak egiten dituzte.
- Klubaren sortzaileak: Josu Arkaitz Martin Rodriguez, Itsaso Alonso Sanchez, Pedro Ozalla Rabal, Aritza Munariz O'Shea eta Mikel Liebana Payo.

Ezarritako ordenaren arabera, hitza eman zaio klub bakoitzari aurkezpena egiteko. Dagozkien galderak egin zaizkie, eta ongiatorria eman zaie.

Basozelai Trail Club Deportivok eta Ganeroitz Mendi Klubak ez dute aurkezpenean parte hartu.

HIRUGARREN PUNTUA: 2021EKO EKITALDIKO KONTABILITATEA IXTEA.

Alberto Nieto Ibarrechebea diruzainak 2021eko ekitaldiko kontabilitate-itxiera aurkeztu du. Aho batez onartu da.

LAUGARREN PUNTUA: 2022RAKO AURREKONTUA.

Alberto Nieto Ibarrechebea diruzainak 2022ko ekitaldirako aurrekontua aurkeztu du. Aho batez onartu da.

BOSGARREN PUNTUA: HAINBAT ARLOTAKO JARDUEREN AURKEZPENA.

Eskola Kirola / Mendieskola arloari dagokionez, José Félix Fernández de Pongak iaz egindako jardueren balantzearen berri eman du: 58 jardueratan 2.609 parte-hartzaile izan ziren, txiki zein nagusi, egindako hainbat irteeratan, tailerretan, eskalada-lehiaketatan eta egonalditan; Covid-19aren ondoriozko murrizketak indarrean egonik ere, Aldundiarekin hitzartutakoak aurrera egin zuen. Aurten dagoeneko 23 jarduera aurreikusten dira, 1.588 parte-hartzailerekin, txiki zein nagusi.

Jakinarazi da Aldundiarekin hitz egiten saiatuko direla, ea txikienen lehiaketetarako izen-ematea arindu daitekeen. Izan ere, horietako asko, gehienak, ez dira lehiatzen, datuak sartu eta izena emateko urrats guztiak osatzea oso zaila baita guraso edo tutore askorentzat.

Honakoa ere jakinarazten da: Piugazen egingo den Boulder txapelketa apirilaren 2tik eta

maiatzaren 28ra aldatu dela. Data hori dagoeneko jakinarazi zaie parte-hartzaileen gurasoei mezu elektronikoz bidez.

Euskal Goimendi eskolaren alorrari dagokionez, aipatu alorreko arduradunak, José Félix Fernández De Pongak jakinarazi du orotara 23 ikastaro egin direla, eta 200 ikasle izan dituztela. Ikastaro asko bertan behera geratu ziren, Covid-19ak eraginda ikasle askok aurreko egunean ez zirela joango adierazi zutelako edo urte osoan zehar hainbat murrizketa egon zirelako. Aurten, pandemia dela-eta lasaiago gaudenez, guztira 15 ikastaro egin dira, eta 117 ikasle izan dituzte (4 hilabete horietan 8 ikastaro bertan behera utzi ziren azken orduko bajengatik)

BBT (Bizkaiko Boulder Txapelketa) maiatzaren 7ra aldatu dute, aurreko deialdiko parte-hartzaile kopurua berdintzeko esperantzaz; ordu hartan 200 lagunek hartu zuten parte.

Segurtasuna eta Ingurumena arloari gagozkolarik, Alberto Cardoso Corralesek adierazi du iazko helburuari eutsiko zaiola. Aurten federazioko teknikariei osasun-prestakuntzaren alorrean ikastaroak emango zaizkie. Alerta-sistemak bultzatuko dira, hala nola SOS DEIAK aplikazioa eta 7.7 PMR katea. Prestakuntza-ikastaroetan edukitzeko botikinak erosiko dira. Aipatu prestakuntzarako "talkie" deritzenak ere izango dira. Halaber, Segurtasun Batzordearekin batzarrak egiten jarraituko da.

Xenda arloari dagokionez, Ana Sesumagak, Batzordeko arduradunak, jakinarazi duenez, 2022. urtean, PR xendei dagokienez, Zierbenako udalak sustatutako PR-BI 220 "Itsas zaporea" berriz homologatu da. Bost bidezidor berriro homologatzeko lanak egiten ari dira, eta hori urte amaierarako lortuta izatea espero da. Aipatu xendak honakoak dira: PR-BI 35, PR-BI 52, PR-BI 74, PR-BI 15 eta PR-BI 16. Beste 8 bidexka eta 2 ingurabide dagoeneko homologatuta daude. Honakoak dira: PR-BI 11, PR-BI 168, PR-BI 169, PR-BI 170, PR-BI 100, PR-BI 100.1, PR-BI 100.2, PR-BI 33, PR-BI 34, PR-BI 86. Beste bi xenda berriren proiektuak ere badira: PR-BI 170 eta PR-BI 111 Ortuellako bira-Burdinaren bila.

GR bidexkak direla-eta, BFAk eskatu du GR 123 Bizkaiko bira-Vuelta a Bizkaia delakoaren 10, 11, eta 12. etapak homologatzea. Laster homologatuko da 10. etapa, eta ondoren egingo da 11. Azken honen kasuan, Laidako hondartzan panel bat instalatzeke dago. 12 eta 13. etapen kasuan ere, lanean dihardute. GR-229 Mikeldiri dagokionez, laster hasiko dira berriz homologatzeko lanak, behin 4 urteko epea bukatuta.

Xendazaletasun Ligari dagokionez, lehenengo irteera 2022ko martxoaren 13an egin zen, Ganerantz mendi-klubaren ardurapean. 199 pertsonak eman zuten izena, eta 184 lagunek hartu zuten parte. 15 txaleko islatzaile eman zitzaizkien parte hartu zuten klubei. Autonomia-erkidego mugakide batera joatea erraztuko da, betiere erkidegoak irteera antolatzen badu. 4 irteera eginda edukitzea beharrezkoa izango da, eta 5 € kobratuko da autobusa.

Federazioak bere burua eskaini du xenda bat mantentzen lagundu nahi duten klubei prestakuntza emateko.

Emakumea eta Mendia arloari gagozkolarik, beronen arduradunak, Garbiñe Okerantza Zuletak, adierazi du iazko helburuei eutsiko zaiela: mendi-kirolean andrazkoen parte hartzea sustatzea eta areagotzea modu transbertsanean federazioko batzorde guztien artean; emakumeen parte-hartzea areagotu mendi-jarduera guztietan; andra bizkaitarrei aitortza egin gazteenen erreferente izan daitezen; emakumeen prestakuntza handitu mendi-jardueretan; emakumeen lidergoa sustatu, eta aurrera eraman nahi dituzten eta andrazkoen parte-hartzea ikusarazten duten proiektuak babestu.

Helburu horiekin, aurtengo proiektuak izango dira Berdintasunaren Aldeko Gailurrak 2. Martxa, martxoaren 5ean egingina, zeinetan 300 lagunek hartu zuten parte. Horietatik, % 63 ziren emakumezkoak eta % 37 gizonezkoak. % 56 federatuak ziren eta % 44 federatu gabeak.

EmakuMendi proiektuan lanean jarraituko da, eta bideoen bidez Bizkaiko gure emakume mendizaleei ikusgarritasuna emango zaie.

Egoerak aukera ematen badu, urrian edo azaroan Emakumea eta Mendia 2. Topaketa egiteko asmoa dago.

Lasterketak alorrean, berriz, Fernando Pérez Ruíz arduradunak jakinarazi du Bizkaiko Mendi-Lasterketen helburuak direla, behin pandemia atzean utzita, egutegiari eustea. Bizkaian 50 bat lasterketa baino gehiago antolatu dira. Mendi-lasterketen ligari dagokionez, ohiko jardunera bueltatu dira. Gorbeia-Suzien deritzona nazioarteko lasterketa bilakatuko da, eta txapelketako azken proba izango da. Teknikazio-ikastaroak sustatuko dira. Modalitate gero eta handiagoa da, eta klub askok ematen dute izena federazioan, modalitate hori jardueratzat hartuta. Espainiako Atletismo Federazioaren eta mendi- eta eskalada-federazio batzuen arteko gatazka judiziala azaldu da, besteak beste, Euskal Federazioarena, mendiko lasterketak Espainiako Mendi eta Eskalada-Kirolen Federazioaren, FEDMEren, berezko espezialitatea izateari dagokionez.

SEIGARREN PUNTUA: KLUB BERRIAK SARTZEKO KUOTA.

Aho batez onartu da, eta abstentzio bakarra egon da, Goiko Mendi klubarena.

ZAZPIGARREN PUNTUA: PRESIDENTEAREN TXOSTENA

Presidenteak jakinarazi du onartutako aktan bazirela bete gabeko gaiak, denbora horretan betetzen joan direnak.

Bide Publikoen Jardunaldia egin zen, J. M. Nasarre aditu juridikoaren eta Sendo enpresaren partaidetzarekin, Elena eta Guillermoren ordezkari, bide publikoen inbentarioak egitean aditu izanik. Euskal Zuzenbide Zibileko Legearen 15. artikulua defentsa izan zen eztabaidaren ardatz, igarotzeko eskubideari buruzkoa, bai eta udalek bide publikoen inbentarioa egiteko duten betebeharrari buruzkoa ere, haien eskumen eskusiboa baita.

Aldundiarekin eta zenbait udalekin negoziatzen jarraitzen da eskalada-bideak egokitzeko proiektua, jarduera horien kudeaketan politika aldatzearen ondorioz geldiarazi zena.

Denbora-tarte honetan modu globalagoan ekin ahal izan zaio proiektuari epe ertain eta luzera, Eskalada-bideen dinamizaziorako Ituna izenarekin. 2022. Urtean Urduliz eta Galdames inguruko eremuak egokitzeko lanak egingo dira bereziki, udalekin sinatutako akordio baten bidez, sarbideak euren eremuetara egokitzeko eta berrantolatzeko konpromisoarekin.

8 bideo labur ekoiztuko dira eskaladan hasteko maniobrei eta korapiloei buruz, eta Master Class bat emango da eremu bakoitzean maniobretako batzuk azaltzeko.

Comped Tow Nav GPS delakoarekin ere akordioa egin da. Akordio horretan 8 GPS terminal utziko dizkigute ikastaroetako ikasleentzat, baita beste pare bat begiraleentzat eta ordenagailuko software-aren lizentziak ere. Federatuei % 15eko deskontua egingo zaie eta % 30ekoa federazioaren eskaerei.

Euskadi eta Nafarroako Ipar-Martxa kopa sortu da, eta lurralde bakoitzean proba bat egingo da: ekainaren 12an Lodosan, irailaren 17an Araian, urriaren 16an Gorkizen eta azaroaren 6an Donostian.

Xendetan Aldundiaren konpromisoa dugu GR 123ko etapa bat egiteko. Horretarako klub batzuetako boluntarioak beharko ditugu kontrolatan.

Borondate oneko gidarien ikastaro batzuk bertan behera geratu dira ikasle-faltagatik. Gogoratu beharra dago prestakuntza hori derrigorrezkoa izango dela funtzio hori betetzen duenarentzat, nahiz eta boluntario moduan horretan aritu.

Ipar-Martxako ikastaroen programarekin gauza bera gertatu da; lehen bultzada eta gero, interes-falta ikusi da, baina horrekin jarraituko da, ikasleak dauden heinean.

Batzarraren eskaera ere bete da, federatuen lizentzien gaineko zerga-murrizketa Ogasunaren aurrean errazteko.

ZORTZIGARREN PUNTUA: GALDERAK ETA ESKAERAK.

Bideako César Corada Garcíak orientaziorako alor bat sortzea proposatu du.

Diruzainak jakitera eman du, Foru Ogasunarekin adostutakoa dela-eta, federatu bakoitzaren lizentziari dagokion dohaintza-kontzeptuaren zenbateko kengarria. Hala ere, betebeharrak hori, araudiaren arabera, klub bakoitzeko presidenteari da, eta horiek jakinarazi behar diote federatu bakoitzari beren klubean dagokion hobaria jasotzeko eskubidea dutela.

Jorrazteko bestelako gairik ezean, Federazioko presidentek amaitutzat eman du Batzarra, bertaratutakoei parte-hartzeagatik eskerrak ematearekin batera.



Sin.: Karmelo Ruíz de Alegría Martín
BMFko idazkaria



Sin.: Víctor Manuel Vivar Moreno
BMFko presidentea